

**BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, PUBLIZITATE GABE NEGOZIATUTAKO
PROZEDURAZ GIPIZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, S.A.U.-REN ZERBITZURA
DAUDEN LANGILEEN BIZITZA ETA ISTRIPU ASEGURUEN ESTALDURA
KONTRATATZEKO**

1.- DEFINIZIOAK.

Aseguruaren hartzailea: Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U. (aurrerantzean, halaber, GHK)

Aseguratzailea: Kontratu bidez adostutako arriskuak bere gain hartzen dituen entitate aseguratzailea.

Aseguratua: Aseguratutako interesaren titular diren pertsona fisiko eta juridikoak.

Onuraduna: Aseguratuarengandik edo aseguruaren heriotzarengatik edo beste edozein gorabeherarengatik, lagapen baten ondoren, kalte-ordaina jasotzeko eskubidearen titularra den pertsona fisikoa edo juridikoa.

Poliza: Asegurua arautzen duten baldintzak jasotzen dituen dokumentua. Poliza osatzen dute kontratazio honetarako indarrean dauden baldintza administratiboen agiriak eta baldintza teknikoek, baita hura osatzeko edo aldatzeko gerora igor daitezkeen gehigarri, eranskin edo edizioek ere.

Prima: Aseguruaren prezioa. Ordainagiriak gainera, legez aplikagarriak zaizkion errekaruak eta zergak jasoko ditu.

Ezbeharrak: Zuzenean bizitza galtzea edo galera organikoak, anatomikoak edo funtzionalak eragiten dituen eta poliza honen baldintzen arabera kalte-ordaina jaso behar duten aseguratutako arriskuak bat gertatzea.

Gertaera.- Gertaera terminoak jazoera bakar baten emaitza den galera bat edo batzuk adierazten ditu.

Istripua: Istripuzat jotzen da bortitza, bat-batekoa, kanpkoa den eta aseguruaren intentzionalitatekin at dagoen kausa batetik eratortzen den gorputzeko lesio oro, aurrerago baldintza agiri honetan jasotako istripuen aseguruaren oinarri espezifikoen adierazten den moduan.

2.- KONTRATUAREN XEDEA.

Lehiaketaren xedea da GHKk, hartzaile gisa, bere zerbitzura dauden langileentzako bizitza eta istripu aseguruaren estaldurak kontratatzea, baldintza teknikoek agiri honetan eta klausula

administratibo berezien agirian zehazten diren oinarrien arabera; horiek gutxieneko estalduratzat jotzen dira.

3.- BALDINTZA TEKNIKOAK.

Poliza horien baldintza bereziak jarraian zehazten direnak dira, eta gutxieneko estalduratzat jotzen dira; lizitatuak horiek hobetzeko aukera izango dute.

4.- POLIZEN HARTZAILEA.

Polizen hartzailea Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U. sozietatea da.

5.- ESTALDUREN HEDADURA.

Aseguratuak bizitza eta istripue polizen estaldurak babesten ditu, eguneko hogeita lau orduz eta mundu osoan, bai haien eguneroko bizitzan eta bizitza pribatuan, bai haien lanbidean ari direnean.

6.- ASEGURATUTAKO TALDEAREN DESKRIBAPENA.

1. Aseguratutako taldea GHKren zerbitzura dauden langileek osatzen dute, estalduraren xede diren aseguruetako bakoitzari dagokion atal espezifikoan jasotzen diren zehaztasunekin.
2. Ulertuko da itundutako polizek automatikoki asegurutzen dutela gaur egun edo etorkizunean GHKren zerbitzura enplegatuta dagoen pertsona oro, baita baldintza tekniko honen laugarren atalean adierazitako taldea ere, eta inolaz ere ezingo du enpresa esleipendunak zerrenda nominatiboa igor dadin eskatu. Honek, hala ere, GHKri eskatu ahal izango dio ezbeharraren datan ezbeharra izandakoa GHKren zerbitzura enplegatuta zegoela kreditatzen duen ziurtagiria emateko, baita ezbeharraren gorabeherari eta ondorioei buruzko informazio mota oro ere.
3. Espreski aseguraturat joko da, halaber, aldi baterako ezintasun egoeran edo edozein motako baliaezintasuna izapidetzen ari diren langileak, seme-alabak zaintzeko eszedentzia-egoeran edo kontratuaren behin-behineko etenean dauden langileak, baita 65 urte betetik GHKren aginduetara zerbitzu aktiboan jarraitzen duten langileak ere.
4. Era berean, kontratazioaren xede den polizan sartuta egongo dira, gorabehera bereziak direla-eta, Gizarte Segurantzaren alta emanda ez dauden pertsonak, Langileen Estatutuaren aplikazio-eremuan jasotako lan-harremanaren arabera enpresaren kontura ordaindutako zerbitzuen prestazio-esparru baten barruan ez egoteagatik edo

izaera bereziko harremanengatik. Kasu honetan egon litezke, mugatzailea ez den adibide bat ematearren, bekadunak, atzerriratutako langileak, etab. Kasu honetan nahikoa izango da ezbeharraren datan aseguratua GHKren zerbitzura zegoela kreditatzen duen ziurtagiria aurkeztea.

5. Era berean, jasota dago aseguratuta daudela hartzailearen zerbitzura alta emandako langile minusbaliatu guztiak, minusbaliotasun horretatik eratorzen ez den ezbehar guztietarako.
6. Pertsona batek edozein arrazoi dela-eta, aseguratutako taldekoa izateari uzten badio, aseguratutako taldekoa izan zen bitartean jasandako gaixotasun edo istripuetatik eratorzen diren eskubideak mantenduko ditu.
7. Gaur egun aseguratutako taldea osatzen dutenen kopurua, gutxi gorabehera, **9 pertsonakoa** da, jarraian adierazten den bezala xehatuta:

<u>TALDEA</u>	<u>JAIOTZE-DATA</u>	<u>SEXUA</u>	<u>ENPLEGATU KOP.</u>
LAN-ITUNPEKO LANGILEA	1982/03/10	G	1
LAN-ITUNPEKO LANGILEA	1981/02/26	G	1
LAN-ITUNPEKO LANGILEA	1977/10/14	E	1
LAN-ITUNPEKO LANGILEA	1977/08/30	E	1
LAN-ITUNPEKO LANGILEA	1976/06/12	E	1
LAN-ITUNPEKO LANGILEA	1970/09/26	G	1
LAN-ITUNPEKO LANGILEA	1969/05/08	E	1
LAN-ITUNPEKO LANGILEA	1967/07/24	G	1
BEHIN-BEHINEKO LANGILEA	1958/08/18	G	1

7.- DENBORA ESPARRUA.

Polizaren ondorioaren data 2015eko urriaren 1eko 00:00etan hasiko da, dagokion prima ordainduta egon ala ez.

Kontratuaren indarraldiaren epea 2015eko urriaren 1eko 00:00etatik 2016ko irailaren 30eko 24:00etara izango da. Primaren ordainketan atzerapena badago, horrek ez du kontratua suntsiaraziko ezta entitate aseguratzaileari gertatzen diren ezbeharrak artatzeko betebeharra kenduko ere.

Kontratuaren iraupena bakarra da, legez kontratua suntsiarazteko edo deuseztatzeko gerta litezkeen arrazoen edo horren luzapenen kalterako izan gabe.

8.- APARTEKO ARRISKUAK.

Aseguruen Konpentsaziorako Kontsorzioak aparteko izaera duten ezbeharren kalte-ordainak emango ditu Aseguruen Konpentsaziorako Kontsorzioaren Lege Estatutuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 29ko 7/2004 Errege Dekretu Legegileak, Aseguru Kontratuaren urriaren 8ko 50/1980 Legeak, Aparteko Arriskuen Erregelamendua onartzen duen otsailaren 20ko 300/2004 Errege Dekretuak eta gainerako xedapen osagarriek ezarritakoaren arabera.

9.- BESTE ESTIPULAZIO BATZUK: KAPITALEN ETA BERMEEN ALDAKETA

1. Kapitalak eta, kasua bada, bermeak aseguru honen kontratazioak betetzen duen hitzarmen kolektiboaren estipulazioen modu, kopuru eta proportzio berean aldatuko dira.
2. Aurreko paragrafoan adierazten duen gorabeheren aldaketaren hasierako ondorioa atzera eramango da GHKren eta bere langilearen arteko lan-harremana erregulatzeko arauen dagozkien estipulazioak indarrean sartzen diren datara, GHKk esleipendunari jakinarazpena zein datatan egiten zaion kontuan hartu gabe. Horrenbestez, espreski jasoarazten da lehiaketa honen esleipendunek bere gain hartuko dituztela aseguruak indarrean dirauen epean zehar kausa hori dela-eta kalte-ordainetan gertatzen diren diferentziak, urtean zehar kausa horrengatik aseguratuek jasotako zenbatekoetan diferentziarik ez gertatzeko moduan.
3. GHKk eta esleipendunak elkarrekin adostuta sistema bat ezarriko dute aseguratutako bermeetan edo kapitalean aldaketak gauzatzeko, baita aipatu aldaketen ondorioz sortzen den prima likidatzeko ere.

10.- SOZIJETATE ORGANONEN ERABAKIETARA LOTZEA.

Polizak Gizarte Segurantzako prestazioak borondatez hobetzeko duen izaera kontuan hartuta, eta, ondorioz, gizarte- eta lan-arauetara atxikita dagoela, aseguru-kontratuari buruzko 50/1980 Legean jasotako araudiak eta indarrean dauden gainerako xedapenak betetzeaz gain, aseguruak ondoko puntuak beteko ditu:

Poliza honen babesean kalte-ordaina jaso dezakeen kontingentziazat joko da Gizarte Segurantzaren erregulazioak izaera hori egozten dion egintza oro, eta loteslea izango da, kasua bada, horri buruz Gizarte Segurantzaren eskumena duten organo administratibo edo jurisdikzionalak adierazten dutena.

Lanekoa ez den istripuaren kontzeptua aseguru pribatuaren kontratuaren erregulazioak zehaztuko du, aurreko paragrafoan aipatu diren Gizarte Segurantzako organoek esku hartu ez badute.

Ezintasun edo baliaezintasun maila zehazteko, Gizarte Segurantzaren alorrean eskudunak diren organo administratibo nahiz judizialek, gizarte eta lan araudiaren arabera, poliza honek estalitako egintzengatik, langileari dagokion ezintasun mailari buruz, erabaki irmoa loteslea izango da.

Horri buruz, ezintasunen mailaketa eta bakoitzari dagokiona zehaztuko da, honela:

- Gizarte-bidetik aitortutako Ezintasun Iraunkor Absolutuari edo Baliaezintasun Handiari, polizak estalitako Ezintasun Iraunkor Absolutua dagokio.
- Gizarte-bidetik aitortutako Ezintasun Iraunkor Osoari polizan aurreikusitako Ezintasun Iraunkor Osoa dagokio.
- Gizarte-bidetik aitortutako Ezintasun Iraunkor Partzialari, polizan bertan jasotako baremoaren arabera dagokion kalte-ordaina dagokio.

Gizarte-bidetik aseguratuari ez bazaio aitortu, polizak dakarren baremoaren arabera kalte-ordaina jaso behar duen ezintasunik, polizaren kargura, aseguratuari baremoaren arabera dagokion kapitala ordainduko zaio.

Baremo hori Gizarte Segurantzako medikuek emandako mediku-txostenaren arabera aplikatuko da. Horiek ez badute ezintasun maila ezartzen, aseguru-etxearen medikuengana joko da; eta aseguratzailerak eta aseguratuak ez badira ados jartzen, arbitro lanetan Gipuzkoako Lurralde Historikoko Medikuen Elkarteak izendatutako edota aldeek adostutako mediku independente bat arituko da.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateratuaren (ekainaren 20ko 1/1994 Errege Dekretu Legegilea) 138. artikuluko 1. puntuko bigarren paragrafoak jasotzen duen kasuan, baliaezintasuna aitortzeko prozesua eten denez, aseguratzaileraren medikuei eskatuko zaie esan dezaten ea baliaezintasunik dagoen; eta aseguratzailerak eta aseguratuak ados ez badaude, arbitro lanetan Gipuzkoako Lurralde Historikoko Medikuen Elkarteko mediku independente bat edota aldeek adostutako mediku bat arituko da.

11.- PERTSONAK DESAGERTZEA.

Ezbehar baten ondorioz aseguratutako taldeko pertsona bat desagertzen bada, egoera hori heriotzaren parean jarriko da desagertu eta BI HILABETERA, datatik datara zenbatuta, agertu gabe jarraitzen badu, betiere zantzu nahikoak badaude benetan hil egin dela susmatzeko.

Onuradunek dagokien kalte-ordaina jasoko dute, betiere beren gain hartzen badute, inoiz desagertutakoa bizirik agertzen bada, jasotako kalte-ordaina itzultzeko betebeharra, interesik ordaindu beharrik gabe.

12.- ONURADUNAK.

Bai istripu polizan, bai bizitza polizan, ezbeharra gertatzen bada, onuradunak aseguratuek berariaz zehazten dituzten pertsonak izango dira eta aseguruaren hartzaileak jakinaraziko dio kontratuaren esleipendunari nor diren horiek.

Hala ere, aseguruak berariaz onuradunik izendatzen ez badu, lehenetsun ordena honen arabera ezarriko da nor diren onuradunak, bai istripu polizan, bai bizitza polizan:

- Ezintasunaren kasuan, aseguratua bera.
- Heriotzaren kasuan, arau hauei jarraiki zehaztuko dira:
 1. Lehenik, aseguratutako taldeko kide bakoitzak egindako izendapena kontratua indarrean dagoenean, edonoiz.
 2. Onuradunik izendaturik ez dagoenean, heriotzaren kasurako aseguratutako kapitala arau hauei jarraiki emango da:
 - ⇒ Lehenik, ezkontidea edo izatezko bikotekidea, maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak adierazten duen bezala eratua, aseguruarengandik legez banandua ez badago.
 - ⇒ Legez banandu gabeko ezkontiderik edo bikotekiderik ezean, seme-alabak, eta seme-alabarik ezean, aseguruaren gainerako ondorengoak.
 - ⇒ Aurrekorik ezean, gurasoak, eta gurazorik ezean, aseguruaren gainerako aurrekoak.
 - ⇒ Aurrekorik ezean, aseguruaren anai-arrebak.
 - ⇒ Anai-arrebarik ezean, aseguratutako kapitala aseguruaren legezko oinordekoei emango zaie. Edonola ere, Estatua kanpoan geratuko da.
 3. Onuradun bat baino gehiago badago, eta aseguruak aurretik guztion artean banaketa egina ez badu, analogiaz Kode Zibileko arauak jarraituko dira lehenetsunari eta oinordetzaren deiei dagokienez.

13.- ASEGRATUTAKO ZENBATEKOA ORDAINTZEA.

Ezbeharra gertatzen bada, entitate aseguratzaileak aseguratutako zenbatekoa txeki bidez ordainduko du, aseguruaren izenean edo, kasua bada, dagokion onuradunaren izenean, hura zehazteko aurreko estipulazioan zehazten diren arauen arabera. Txekea GHKren Finantza Alorrean aurkeztuko da.

Loteslea izango da Gizarte Segurantzako organo eskudunen erabaki irmoa baldintza agiri honetan jasotzen diren ezintasun motak erabakitzeko. Loteslea izango da, halaber, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren Ezintasunak Baloratzeko Taldearen edo organo baliokide baten mediku-iritzia.

Horrelakoetan, enpresak, gaitzaren jatorria, arrazoia eta garapena azaltzen dituen mediku-egiaztagiria jasotakoan –edo, kasua bada, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren Ezintasunak Baloratzeko Taldeak edo organo baliokide batek emandako kalifikazioa jasotakoan–, aseguratutako kapitala ordainduko du.

Istripu baten ondorioz langile bat hiltzen bada edo ezintasun iraunkorra eragiten badiu, entitate aseguratzaileak onuradunari istripu eta bizitza polizen kalte-ordainak ordainduko dizkio, bi polizetan aseguratutako zenbatekoak jasotzen dituen txekearen bidez.

Espedienteak izapidetzeko eta dagozkion kalte-ordainak ordaintzeko behar den dokumentazioaren inguruan, esleipendun suertatzen den entitate aseguratzaileak ondoren zehazten den dokumentazioa eskatu ahal izango du, eta ezin izango du dokumentazio osagarria eskatu, soil-soilik kasua apartekoa bada eta izapidetzaz arduratzen den GHKko langile teknikoaren iritziz justifikatuta badago:

- a) Aseguruaren Nortasun Agiriaren fotokopia.
- b) Langileen alorrean eskumena duen organoak emandako egiaztagiria, non adierazten den kalte-ordaina eskatzen duen pertsona GHKren enplegatua zela kalte-ordaina eragiten zuen egintza gertatu zenean.
- c) Heriotzen kasuan:
 - Aseguruaren heriotzaren egiaztagiria.
 - Onuradunaren edo onuradunen nortasuna ziurtatzen duten dokumentuak.
 - Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari dagokion autolikidazioa aurkeztu izana ziurtatzen duen dokumentua.
- d) Baliaezintasun Handien edo Ezintasun Iraunkor Absolutu edo Osoaren kasuetan:
 - Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren Ezintasunak Baloratzeko Taldearen mediku-iritzia edo Autonomia Erkidegoko organo baliokidearen

mediku-iritzia edo baliaezintasun edo ezintasun egoera aitortzen duen ebazpena.

- Lan-harremana amaitutzat ematen duen ebazpen administratiboa.

e) Ezintasun Iraunkor Partzialaren kasuan:

- Alta eta bajaren mediku-partreak, istripuaren ondorioa zein ezintasun mota izan den zehazten dutenak.
- Istripuaren ondorioak kreditatzen dituen mediku-dokumentua.

14.- EZBEHARRIK EZ IZATEAGATIK DAUDEN ETEKINETAN PARTAIDETZA.

Lizitzaileek eskaintzan partaidetza bat gehituko dute, ezbeharrrik gabeko egoeran eta ezbehar maila aldekoa den egoeran sortzen diren etekinen partaide izateko. Arau hauei jarraiki konfiguratuko da:

1. Aldeko desbiderapena zehaztuko da urtean ordaindutako prima garbien arteko aldearen arabera, aseguruaren urterokoan egon diren dagozkion administrazio-gastuak (entitate lizitzaileak zehaztu beharrekoak) eta aldi berean gertatutako ezbeharren zenbatekoa kenduta.
2. Ateratzen den aldeko desbiderapenari etekinen partaidetza-portzentajea aplikatuko zaio (entitate lizitzaileak zehaztu beharrekoa).
3. Urteroko bakoitzeko berritze-prima tarifaren arabera kalkulaturako primari aurreko ataletako zenbatekoa kenduta aterako da.
4. Ezbeharraren desbiderapena kontrakoa balitz, aseguratzailerak osorik jasango luke urteko galera eta hartzaileak ez du kalterik jasango hurrengo urteetako tarifa-primaren doikuntzak egiten direnean.
5. Era berean, aldeetako batek urterokoren batean kontratua salatuko balu eta ezbeharrak ez izateagatik dauden etekinetan partaidetza balegokio, hori ordaindu beharko luke entitate esleipendunak, aipatu arauen arabera.
6. Lizitzaileak adierazi beharko du bere eskaintzak ezbeharrak ez izateagatik dauden etekinetan partaidetza barne hartzen duen bi polizetarako (bizitzarena eta istripuena) ala soilik bakarrerako. Etekinetan partaidetza bi polizetarako eskaintzen bada, adierazi egin beharko da, halaber, aipatu partaidetza baterakoa den ala, aldiz, banan-banan zehaztuko den poliza bakoitzerako.

BIZITZA ASEGURURAKO OINARRI ESPEZIFIKOAK.

1.- ASEGURATUTAKO TALDEAREN DESKRIBAPENA.

BIZITZA estalduran aseguruak izango dira, kontratu honen ondorioetarako, langile guztiak; aseguratutako taldeko enplegatuen kopurua 9koa da, gutxi gorabehera.

2- ESTALITAKO ARRISKUAK.

Polizan ezarritako mugen barruan, aseguratzaileak jarraian adierazten diren arriskuen kalte-ordainak ordainduko ditu:

- a) **Heriotza:** enpresak bermatu egingo du, aseguratua hiltzen bada, hori eragiten duen arrazoiak kontuan hartu gabe, onuradunei adostutako kapitala ordaintzea. Era berean, berariaz egongo da sartuta aseguruaren heriotza baldin eta aseguratutako taldean sartzen den lehenengo urtean bere buruz beste egiten badu.
- b) **Istripu ondoriozko heriotza:** enpresak bermatu egingo du, aseguratua edozein istripuren ondorioz hiltzen bada, onuradunei adostutako kapitala ordaintzea.
- c) **Zirkulazio-istripu ondoriozko heriotza:** enpresak bermatu egingo du, aseguratua zirkulazio-istripu baten ondorioz hiltzen bada, onuradunei adostutako kapitala ordaintzea.
- d) **Ezintasun iraunkorra eta absolutua:** enpresak bermatu egingo du kapitala ordaintzea baldin eta aseguratua ezintasun iraunkor eta absolutuak jota geratzen bada gaixotasun edo istripu baten ondorioz.

Aseguru honen ondorioetarako, ezintasun iraunkorra eta absolutua izango da ustez atzera bueltarik ez duen egoera fisikoa, istripu batek edo gaixotasunak eragina, aseguruaren nahia gorabehera sortua eta hura ezgai bihurtzen duena inolako lan harreman edo jarduera profesional jarraiturako.

Kalte-ordain hori ordaindu egin beharko da baita Ezintasun Iraunkor Absolutuaren egoera berrikustekoa bada ere, bai okerrera egin dezakeelako, bai hobera egin dezakeelako, betiere indarrean dagoen legediak ezartzen duen moduan.

- e) **Baliaezintasun handia:** enpresak bermatu egingo du kapitala ordaintzea baldin eta aseguratua Baliaezintasun

Handi batek jota geratzen bada gaixotasun edo istripu baten ondorioz.

Baliaezintasun Handitzat ulertzen da lesio iraunkorrak jasatea, eguneroko bizitzako jarduera funtsezkoenak egiteko beste pertsona batzuen laguntza eskatzen dutenak.

3.- BIZITZA POLIZEK ASEGURATUTAKO KAPITALAK.

Aseguratutako taldea osatzen duen pertsona bakoitzarentzako aseguratutako kapitala hau da:

a) Heriotza, edozein kausa	132.000.- Eur.
b) Istripu ondoriozko heriotza	132.000.- Eur.
c) Zirkulazio-istripu ondoriozko heriotza	132.000.- Eur.
d) Ezintasun iraunkor absolutua, edozein kausa	132.000.- Eur.
e) Baliaezintasun Handia	132.000.- Eur.

Aseguratutako kapitalak metagarriak dira.

Heriotzaren edo istripu ondoriozko ezintasun iraunkor oso edo absolutuaren kasuetan, istripu aseguruaren estaldurarekin aseguratutako kapitalei bizitza estalduran kontingentzia berberetarako bermatutako kapitalak gehituko zaizkie.

4- KANPOAN GERATZEN DIREN ARRISKUAK.

Ez da inolako arriskurik kanpoan utziko heriotzaren bermerako, edozein dela ere arrazoia.

Ezintasun Iraunkor Absolutuaren bermeetarako, salbuespen hauek izango dira aplikagarri:

- Gerrateen edo antzeko operazioen ondorioak, eta izaera politikoa edo soziala duten ordena publikoko istilu edo nahasmenduetatik eratorritakoak.
- Erreakzio edo erradiazio nuklearraren edo kutsadura erradioaktiboaren ondorioak.

ISTRIPU ASEGURUARENTZAKO OINARRI ESPEZIFIKOAK.

1.- ASEGURATUTAKO TALDEAREN DESKRIBAPENA.

ISTRIPUEN estalduran aseguruak izango dira, kontratu honen ondorioetarako, GHKrentzat zerbitzuak eskaintzen dituzten langile guztiak; aseguratutako taldeko enplegatuen kopurua 9koa da, gutxi gorabehera.

2.- ISTRIPUEN ASEGURUAK ESTALITAKO ARRISKUAK.

Istriputzat jotzen da bortitza, bat-batekoa, kanpoko den eta aseguruaren intenzionalitatekin at dagoen kausa batetik eratorzen den gorputzeko lesio oro. Istriputzat joko dira, aseguru mota honen berezko kasu nagusiez gain, hauek:

1. Gasak nahi gabe arnastearen ondoriozko pozoitzea, asfixia edo erretzea, murgilduraz, material likidoak edo solidoak irensteagatik, elikagaiak izan edo ez, baldin eta beste baten akats edo ekimen kriminalaren ondorio badira.
2. Polizak estaltzen duen istripu baten ondoriozko infekzioak.
3. Polizak estaltzen duen istripu bat gertatuta, ebakuntza kirurgikoaren edo mediku-tratamenduaren infekzioak eta ondorioak.
4. Intsolazioak, kongestioak, izozketak edo tenperaturaren edo atmosferaren presioaren eraginak, baldin eta aseguruak istripuaren ondorioz izan bada haien eraginaren pean.
5. Animalien hozkadek eta intsektuen ziztadek eragindako ondorio guztiak.
6. Bere buruaren defentsan eta giza elkartasunaren betebeharrarekin zerikusia dutenetan gertatutakoak.
7. Apoplexia, zorabio, konorte galtze, sinkope, epilepsia krisi, erotasun edo somnanbulismo egoeretan gertatutakoak.
8. Lurreko, uretako edo aireko lokomozio baliabideen erabilera arruntean gertatutakoak (aireontzi edo helikopteroetan gertatutakoak, kirol apartatuetan gertatutakoak izan ezik), baita motorra, automobila, turismo partikularra, furgoneta eta kamioia gidatzean gertatutakoak ere, betiere aseguruak gidatzen duenaren ibilgailurako baimen egokia badauka.
9. Afizionatu mailako kirola egitean gertatutakoak, itsas zabalean arraun-ontzietan, belaontzietan edo motorrezko ontzietan gertatutakoak barne, baita mendiak igotzen, eskiatzen eta urpeko arrantza egiten (eskafandra autonomoarekin edo gabe) gertatutakoak ere.

10. Mozkorkeria nabarmeneko egoeran jasandakoak.
11. Goi tentsioko korranteetan esku-hartzearen ondorioz gertatutakoak.
12. Zaintiratzeak eta bihurritzeak.
13. Lanbide-gaixotasunak.
14. Istripuak dira lesioak edo heriotza eta ondorioak, baldin eta jatorria hauetako bat bada: bihotzekoa, enbolia, buruko isuria eta antzekoak, betiere horrela erabakitzen badute Gizarte Segurantzaren organo administratibo eta jurisdikzional eskudunek edo haiek ordezkatzten dituzten organoek.
15. Ebakuntzarik ez duen hernia ezintasun iraunkorra izango da.
16. Lehenago azaldutakoek duten izaera bereko ezbeharrak, baldin eta nazio lurraldetik kanpo gertatu badira, berariaz daude enpresa aseguratzaileak babestuta polizaren baldintzen arabera. Beraz, mundu mailako estaldura da.
17. Berariaz adieraziko da istriputzat joko direla erakunde ofizialek edo jurisdikzionalak beren ebazpen eta epaietan istriputzat jotzen dituzten egintzak.

Kontratu honen bidez bermatuko egingo da dagozkien onuradunei ordaindu egingo zaizkiela hurrengo estipulazioan aurreikusitako kalte-ordainak, aseguratuen jasandako istripuen ondoriozkoak eta egoera hauek eragiten dituztenak:

- a) **Ezintasun iraunkor partziala**, laneko edo lanez kanpoko istripu baten ondorioz, mailaren arabera. Galera mota guztiak barne hartzen dira, organoenak, anatomikoak eta funtzionalak.
- b) **Ezintasun iraunkor osoa** aseguruak betetzen zuen lanbiderako edo osatzen zuen talde profesionalaren lanbiderako, lan edo lanez kanpoko istripuaren ondorioz.

Aseguru honen ondorioetarako, Ezintasun Iraunkor Osoa izango da ustez atzera bueltarik ez duena, istripu batek eragina, aseguruaren nahia gorabehera sortua eta hura ezgai bihurtzen duena ohiko lanbidea edo prestakuntza eta ezagutza profesional antzekoak eskatzen dituen jarduera bat betetzeko.

Kalte-ordain hori ordaindu egin beharko da baita Ezintasun Iraunkor Osoaren egoera berrikustekoa bada ere, bai okerrera egin dezakeelako, bai hobera egin dezakeelako, betiere indarrean dagoen legediak ezartzen duen moduan.

- c) **Ezintasun iraunkorra eta absolutua**: enpresak bermatu egingo du kapitala ordaintzea baldin eta aseguruak ezintasun iraunkor eta absolutuak jota geratzen bada istripu baten ondorioz.

Aseguru honen ondorioetarako, ezintasun iraunkorra eta absolutua izango da ustez atzera bueltarik ez duen egoera fisikoa, istripu batek eragina, aseguratua nahia gorabehera sortua eta hura ezgai bihurtzen duena inolako lan harreman edo jarduera profesional jarraiturako.

Kalte-ordain hori ordaindu egin beharko da baita Ezintasun Iraunkor Osoaren egoera berrikustekoa bada ere, bai okerrera egin dezakeelako, bai hobera egin dezakeelako, betiere indarrean dagoen legediak ezartzen duen moduan.

- d) **Osasun-laguntzaren gastuak:** Prestazio honen bidez, aseguratuak hauek bermatzen ditu, istripuaren datatik zenbatzen hasita eta laugarren klausulan adierazitako gehieneko zenbatekoraino: polizak estalitako istripu baten ondoriozko mediku gastuak, botika gastuak (medikuaren preskripzioarekin), kirurgia gastuak eta ospitale gastuak, anbulantzia zerbitzuaren gastuak eta errehabilitazio fisikoak dakartzan gastuak.

Kontzeptu honetan sartzen dira:

- Aseguratuak asistentzia zentro batean edo etxean hartzen dituen mediku zerbitzuak, beharrezkoa denean; eta barne hartzen dira mediku zerbitzuen gastuak, kirurgia eta botika gastuak.
- Ospitaleratze gastuak: hau da, aseguratuak hartu duen osasun zentroko gelaren eta mantenuaren prezioa, estrarik gabe.
- Aseguratuak larrialdian istripuaren lekutik behar bezalako mediku-arreta jaso behar duen osasun zentrorantz eramatea, eta sendatze prozesuan aseguratuak egin beharrezko desplazamenduen gastuak, medikuek agintzen duten garraioan.
- Larrialdiko laguntza, beharrezko larrialdiko eta lehen sorospeneko gastuak barne hartzen dituena.
- Errehabilitazio fisikoko gastuak, fisioterapia eta antzekoak barne hartzen dituztenak, eta aseguratuak medikuaren aginduz sendatze fasean erabili behar dituen elementu lagungarriak alokatzea (makuluak, aulki gurpildunak eta antzekoak).
- Hortz-haginen protesiak, enpresa aseguratuak adierazitako mugaraino.

- g) **Bihotzekoaren ondorioz hiltzea:** Aurreko estaldurez gain, aseguratuak bihotzekoak jota hiltzen bada, enpresa lizitatuak laugarren klausulan adierazitako zenbatekoa ordainduko du.

3- KANPOAN GERATZEN DIREN ARRISKUAK

Kontratatzen den polizatik kanpo hauek bakarrik geratuko dira:

- Aseguratuak nahita sortu dituen ezbeharrak.
- Suizidioa edo bere buruari egindako lesioa.
- Aseguratuak delituzko ekintzetan, dueluetan edo istiluetan parte hartzea, betiere, eta azken horri dagokionez, bere buruaren defentsan edo pertsonak edo ondasunak salbatu nahian ibili ez bada.
- Kirolaren praktika profesionala.
- Gerrate zibil eta nazioartekoetan gertatutakoak, mutinetan eta herri istiluetan gertatutakoak, matxinadetan gertatutakoak, lege martzial pean edo koarentenan gertatutakoak.
- Erradiazioa edo energia nuklearraren ondorioak.
- Drogazaletasunak eragindako istripuak (kasu honetan, medikuaren agindurik gabe hartuak), betiere epaileak toxikomania izan dela ebazten bada.
- Lurrikaren ondoriozkoak, uholde, sumendi edo urakanen eta izaera katastrofikoko eta aparteko beste fenomeno sismiko eta meteorologikoen ondoriozkoak, Aseguruen Konpentsaziorako Kontsortzioak ematen duen estaldurari eragin gabe.

4.- ISTRIPU POLIZETAN ASEGURATUTAKO KAPITALAK.

1. Batetik, GHKren lan-itunpeko langileria osatzen duen pertsona bakoitzarentzako aseguratuak kapitala hau da:

a) Ezintasun Iraunkor Partziala (mailaren arabera)	120.000,00.- Eur.
b) Ezintasun Iraunkor Osoa	120.000,00.-Eur.
c) Ezintasun Iraunkor Absolutua	120.000,00.-Eur.
c) Osasun laguntza	Mugagabea

- Heriotzaren edo istripu ondoriozko ezintasun iraunkor oso edo absolutuaren edo baliaezintasun handiaren kasuetan, istripu aseguraren estaldurarekin

aseguraturako kapitalei bizitza estalduran kontingentzia berberetarako bermatutako kapitalak gehituko zaizkie.

- Ezintasun iraunkor partziala eragiten duten lesio organiko, anatomiko edo funtzionalak ebaluatzeko, arau hauek ezartzen dira:
 - Ezintasun iraunkor **osoa** hauek eragiten dute: bi begiak edo ikusmena galtzea; isticripu batek eragindako buruko nahasmendu osoa eta sendaezina; bi gorputz adar guztiz galtzea, bi besoak, bi hankak, bi eskuak edo bi oinak, beso bat eta hanka bat, esku bat eta oin bat, beso bat eta oin bat, esku bat eta hanka bat; erabateko itsutasuna; erabateko paralisia; modu iraunkorrean ohean egon beharra eragiten duten lesioak; eta ezintasun iraunkor osoa eragiten duen lesio oro.
 - Ezintasun iraunkor **partziala baremoaren** arabera ordainduko da.
- ◆ Gorputz-adar eta organo horiek partzialki bakarrik galtzen direnean edo erabilezin bihurtzen direnean, ezintasun maila zehaztuko da aurreko tasazioak proportzio berean murriztuta. Istripu berak eragindako gorputz-adar bat baino gehiago galtzeagatik edo erabilezin bihurtzeagatik ordaindu beharreko kalte-ordaina kalkulatzeko, gorputz-adar bakoitzari dagokion zenbatekoa gehituko da. Kalte-ordain hori ez da izango, inola ere, ezintasun osorako aseguratutako zenbatekoa baino handiagoa.
- ◆ Aurreko paragrafoetan aurreikusten ez diren kasuetan, ezintasun maila bidezko diren tasazioen dagozkion oinarri eta proportzioen arabera kalkulatuiko da. Lehenago aipatu ez diren kasuetan (gorputz-adar bat partzialki galtzea, esaterako), ezintasun maila garrantziaren arabera ezarriko da, eta zerrendaturako ezintasunak eta proportzioak hartuko dira alderatzeko oinarritzat. Edonola ere, baremoan berriaz azaltzen ez diren ezintasun motak agertzen diren beste kasu batzuen analogiaz ordainduko dira.
- ◆ Aseguratuak ezintasun iraunkor partzialeko kalte-ordaina jaso badu (baremoaren arabera) eta ondoren beste ezintasun bat aitortzen bazaio beste isticripu baten ondorioz (baldin eta aurretik aitortua duen ezintasun partziala larriagotzea ez bada isticripuaren ondorioa), ezintasun mota berriak bermatzen dion kapital osoa jasoko du; eta aurreko ezintasun partzialaren larriagotzea bada, ordaindutakoaren eta ezintasun mota berriaren arteko aldea ordainduko zaio.
- ◆ Aseguratutako arriskua ezintasun oso edo absolutu bat bada, ezin izango da "aseguraturako zenbatekoa" zatitu ezintasun partzialak ezarritako baremoaren arabera.
- ◆ Istripu bakar batek ez du emango aldi berean heriotzaren eta ezintasun iraunkorraren kalte-ordainak eskuratzeko eskubidea.

- ◆ Gorputz-adar edo organo beraren ondoriozko mota desberdinetako ezintasun partzialen kalte-ordainen portzentajeen baturak ezin izango du gainditu erabat galtzearen portzentajea.
- ◆ Istripu bakar baten ondoriozko ezintasunak bat baino gehiago badira eta ezintasun absoluturik ez badago, entitate esleipendunak dagozkion kalte-ordainak batuko ditu. Batura horrek ezin izango du ezintasun absolutuaren 100eko 100 gainditu.
- ◆ Gorputz-adar edo organo bat funtzionalki ezin bada erabili, galera osotzat joko da.
- ◆ Gorputz-adar baten erabilera betiko eta osoki galtzea gorputz-adarra bera galtzea izango da.
- ◆ Aseguratua ezkertia bada, goiko adarretako lesioen kasuan, baremoan aurreikusitako portzentajeak alderantzikatu egingo dira.